

## / Nabarmenezkoak

- > Jaki eta produktu higienikoren bilketa saharar herriarentzat (2. or.)
- > "Vivir", flamenko ikuskizun intimista, sakona eta espirituala Naike Poncerekin (3. or.)
- > Andrzej Olejniczak 40 urte ospatuko ditu Euskadin (3. or.)



\*Karla Llanosek  
"Getxoko  
argazki  
zaharrak  
(1865-1936)"  
aurkeztu du  
(4. or.)

**Umorea.** Hilak 24, ostirala, 20:00etan, Muxikebarrin, "Yo sobreviví a la EGB" (gaztelaniaz), Jordi Mercarekin. 10€.

**Antzerkia.** Hilak 25, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "Heisenberg" (euskaraz), Ramón Agirre eta Naiara Arnedoren eskutik. 10€.

A-  
GENDA

Portu Jasangarria II. Nazioarteko Kongresua otsailaren 6an eta 7an egingo da

## Mundu osoko profesionalak Getxon eta Bilbon bilduko dira logistika- eta portu-sektoreko jasangarritasunari buruz mintzatzeko

Portu Jasangarria Nazioarteko Biltzarraren II. edizioa egingo da otsailaren 6an eta 7an Bilbon eta Getxon. Bi jardunalditan, portuko jarduerarekin eta jasangarritasunarekin lotutako hainbat arlotako adituek beren ezagutzak partekatuko dituzte eta esperientziak trukatu dituzte. Ekitaldi hori estrategia komun bat sortzeko eta portuek ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapen jasangarrian betetzen duten zeregin garrantzitsua nabarmentzeko diseinatu da, bai eta enpresei zein gizarteari trantsizio energetikoaren erronkei aurre egiteko eskaintzen dieten laguntzan ere.

Bilboko Portuko Agintaritzak antolatuta eta Bilboko Merkataritza Ganberaren laguntzarekin, Biltzarrak bilduko ditu, besteak beste: administrazio eta eragile publikoak; portuko garraio, logistika eta jarduerarekin erlazioatutako enpresak; energia, berrikuntza,



jasangarritasun eta ekonomia zirkularren sektoreetako erakundeak; eta ingurune akademikoa eta herritarrak. Portuekin lotutako gaiak landuko dira, baina sektore guztietako enpresei interesatzen zaizkien gaietan sakontzeko eta deskarbonizazioan aurrera egiteko jarduera ekonomikoan aldaketak egitearen garrantziaz sentsibilizatzeko tarte ere egongo da.

Hizlarien artean, nazioartean ezagunak diren adituak eta pertsona famatuak daude, hala nola Peter de Langen mundu mailako portuetako eta logistikako aholkularitza, ikerketa eta hezkuntza exekutiboko aholkulari ezaguna; edo kontserbazioaren biologian eta aldaketa globalean Espainiako aditu handienetako bi: Miguel Delibes eta Eloy Revilla.

Kongresua ostegunean, otsailaren 6an, hasiko da Bilboko Euskalduna Jauregian, eta ostiralean, 7an, Getxoko Olatua Gurutzantzen Terminalera lekualdatuko da.

Programari buruzko zehetasunak ezagutzeko eta izena emateko: [congresopuertosostenible.bilbao-port.eus](http://congresopuertosostenible.bilbao-port.eus)

**94 466 01 81**

**Garbiketa- eta hondakin-bilketetako zerbitzuarentzat arretaz berritua**

Altzari berrerrabigarrien ateratzea, etxetik bertan.

Altzari ez berrerrabigarrien kaleko bilketa.

Herriko eguneroko garbiketa zerbitzuarekin kontaktua.

Alta zerbitzu organikoan: edukiontzia irekitzeko txartelaren erabilera, inausketa eta ostalaritza hondakinak...

Etxeko hondakin toxiko eta arriskutsuekin lotutako gaiak.

Transferentzia-instalazioaren administrazioa eta Garbigunea.



## Fetén Fetén, musika herrikoia eta tradizionala

Gaztelako Fetén Fetén bikote ezagunak bere azken lana, *Raíces*, aurkeztuko du ostiral honetan, hilak 17, Muxikebarrin. Sustrai musikekin, herri eta kultura gisa dugun esentziarekin lotutako ikuskizuna da. Iberiar Penintsulako erritmo herrikoietan zehar egingo da ikuskizuna, zuzeneko bizi eta kementsu batean, balsak, jotak, pasodobleak, txarroak, gupilak, seguidillak, melodia tradizional ugari eta bikote honen konposizioak entzunez gozatzeko.

Tradizioa bere akordeoi eta biolinetik entzuten da, baita zerrotea eta kanpin-aulkia bezalako instrumentu ezohikoetatik ere. Berrerrabiltako materialekin osatutako gaita batek Gaztelako doinuak ekartzen ditu eta koilara batzuk eta zartagin bat errepli-



katzen dituzte, herrietan edozein gauza objektu musikal bihurtzeko irudimena eta sormena beti izan direla gogoraraziz, batez ere pobrezia, krisi eta etsipen garaietan.

Kontzertua 21:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 15 eurokoa da.





### URTARRILAK 16 OSTEGUNA

**Zinemabarri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Charlotte Reaganen "Scrapper" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

**Ipuinaren ordua.** 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Ibilalditxo basotik" (euskaraz), Zugamerekin. 3-6 urte.

**Antzerkia.** 18:30ean, Romoko San José Obrero parrokiako ekitaldi-aretoan, "Con arregano y mucho salero" antzezlan, Las Remachadoras konpainiaren eskutik. Sarrera librea. Antolatzaile: Gizatiar Romo-Areetako Emakumeen Elkarte Sozio-kulturala.

**Literatura solasaldia.** 19:45ean, Algortako kasinoan, Adania Shiblien "Un detalle menor" liburuari buruz. Gaztelaniaz.

### URTARRILAK 17 OSTIRALA

**Errezitaldi poetiko-musikala.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Unamuno, versos y prosa" (gaztelaniaz). Antolatzailea: Asociación artística vizcaína eta Muelle Marzana abesbatza poetikoa. Sarrera dohainik.

**Zine kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Ilker Çataken "Sala de profesores" (gaztelaniaz). 7 urtetik aurrera. 3,50€.

**Kontzertua.** 21:00etan, Muxikebarrin, Fetén Fetén taldearen emanaldia. 15€.

### URTARRILAK 18 LARUNBATA

**Antzerki musikala. Neguko bidaia zikloa.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Backstage" ikuskitun liriko eta parte-hartzailea. 5€.

**Kontzertua.** 20:00etan, Muxikebarrin, "40 urte Euskadin" Andrzej Olejniczakekin. 12€.

### URTARRILAK 19 IGANDEA

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Yoko oporretan" (euskaraz). 2,50€.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Ratones y zorros, una amistad de otro mundo" (gaztelaniaz). 2,50€.

**Haurrentzako antzerkia.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Moko" (euskaraz), Gorakadarekin. 6 urtetik aurrera. 6€.

### URTARRILAK 20 ASTELEHENA

**Hitzaldia.** 18:15ean, Romo Kultur Etxean, "La psicosis. Desmantelando mitos y estigmas. ¿Qué es? Nuevos enfoques en el tratamiento". Hizlaria: Leire García Fernández (psikiatra). Antolatzailea: Gizatiar-Romo Areetako Emakumeen elkarte sozio-kulturala.

### URTARRILAK 22 ASTEAZKENA

**Liburu-aurkezpena.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "El aklarre de las brujas (Los crímenes de Getxo III)", Haizea López egilearen eskutik (gaztelaniaz).

### URTARRILAK 23 OSTEGUNA

**Kontzertua. Neguan Flamenko zikloa.** 20:30ean, Muxikebarrin, Naïke Ponceren emanaldia. Sarrera gonbidapenarekin (Muxikebarrin).

**Zinemabarri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Marielle Hellerren "¿Podrás perdonarme algún día?" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

### URTARRILAK 24 OSTIRALA

**Umorea.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Yo sobreviví a la EGB" (gaztelaniaz), Jordi Mercarekin. 10€.

**Zine kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Jeanne Herryren "Las dos caras de la justicia" (gaztelaniaz). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

### URTARRILAK 25 LARUNBATA

**Kontzertua. Neguko bidaia zikloa.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Duo Nacedo", Lidia Sierra (bibolina) eta Inés Moreno (biola). 5€.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Heisenberg" (euskaraz), Ramón Agirre eta Naiara Arnedorekin. 10€.

### URTARRILAK 26 IGANDEA

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Fritzi, un cuento revolucionario" (gaztelaniaz). 2,50€.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Herensugeak, haritzaren bihotza" (euskaraz). 2,50€.

**Pailazoak.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Pailazo", Txirri, Mirri eta Txiribitonekin. 6€.



## Jaki eta produktu higienikoren bilketa saharar herriarentzat

Udalak, beste urte batez, parte hartuko du saharar herriaren aldeko Euskal Karabana Solidarioarako jakiak eta oinarritzko produktu higienikoak biltzen, aurrekoetan bezala, ahal den neurrian, Aljeriako Tindoufeko kanpamenduetan bizi diren saharar errefuxiatuek pairatzen duten elikadura-krisia arintzen laguntze aldera.

Horretarako, datorren urtarilaren 31ra arte, udalerriko ikastetxeetan, eta Fadurako eta Gobelako kiroldegietan herritarrek utzi ahal izango dituzte jakiak eta oinarritzko produktuak, hau da, arroza, atuna oliotan, azukrea, pasta, sardinak oliotan eta lekaleak, eta konpresak, eta helduentzako eta adingabeentzako oihalak. Produktuak Fronte Polinarioak, Euskal Fondoaren Sahararekin koordinatzeko Unitateak eta herri sahararrekiko elkartasun elkarteek (tartean ATFAL Getxoko Sahararen aldeko elkarteak) antolatutako Sahararen al-

deko Euskal Karabanaren bitartez bidaliko dituzte errefuxiatuentzako kanpamenduetara.

*"Aurten ere, Udalak bat egin du ekimen horrekin, eta, ahal den neurrian, Tindoufeko kanpalekuetan baldintza zailetan bizi diren pertsonen oinarritzko beharrak asetzea du helburu. Getxo udalerrri solidarioa da, 1994az geroztik Bir Ganduz dairearekin senidetua, eta horrez geroztik bere elkartasuna erakutsi du saharar herriarekiko hainbat programa eta ekimenen bidez. Getxoko herritarrei dei egin nahi diegu berriro, ahal duten neurrian, elikagaien krisi honi aurre egiten laguntzeko", nabarmendu du Carmen Díazek, Gizarte Kohesioko zinegotziak.*

Bestalde, ATFAL elkarteak berriro nabarmendu du mota honetako ekimenen garrantzia *"kasu honetan produktuek laguntzen dutelako kanpamenduetan gaur egun dauden behar handiei aurre egiten"*.

Informazio gehiago Lankidetzako sailaren telefono zenbakian (94 466 00 17) eta ATFAL elkartearen zenbakian ere (658 751 359).

## GLLak justifikatzeko epea luzatuta

Datorren otsailaren 28ra arte luzatu du Udalak 2024 urteari dagozkion GLL, Gizarte Larrialdietarako Laguntza guztiak justifikatzeko epea. Gastuak egin behar dira justifikatzeko epea amaitu aurretik. Diru-laguntzak justifikatzeko emandako kontzeptuaren ordainagiriak, fakturak edo/eta enpresa hornitzaileek emandako kontsumo-ziurtagiriak aurkeztu behar dira, beti ere eman diren kontzeptuei buruzkoak.

Udalak gogoratzen du beharrezkoa dela jasotako Laguntzen justifikazioa behar bezala egitea, hori ez egitekotan, Udalak itzultze prozesua martxan jarriko baitu. Eskatutako agiriak norberari dagokion Gizarte Zerbitzuen bulegoan aurkeztu beharko dituzte herritarrek.

## Zuzenketa

Kulturartekotasuna euskara ardatz izenburuko solasaldia izango da datorren otsailaren 13an, eta ez urtarilaren 13an, akats baten ondorioz Getxoberriren aurreko alean argitaratuta agertu zen moduan. SENDI proiektuaren barruan kokatuta, 17:30ean hasiko da saioa Algortako Zabala eskolan. Informazioa eta inskripzioa: 622433085/[sendigetxo@gmail.com](mailto:sendigetxo@gmail.com)

## Hegaztieak behatzeko jarduera, La Bola hondartza ondoan

La Bola hondartza ondoko pasealekuan hegaztiak begiratzeko ohiko jarduera egingo da larunbat honetan, hilak 18. Helburua da jendeari erakustea zer hegazti espeziak baliatzen duten Abra beren migrazioan babesteko, elikatze eta atseden hartzeko leku gisa: kaioak, lertxunak, hainbat limikola, ubarroiak, murgilak eta txilinportak, besteak beste. Aldi berean, hegaztien baliok eta natura-inguruneari egiten dioten ekarpena transmititu nahi da, haiek behatzu,



gozatuz eta identifikatuz. Orduetgia 10:00etatik 14:00era izango da, doako jarduera da, ez da beharrezkoa aldeztu aurretik izena ematea eta edozein pertsona pasa daiteke La Bola hondartza ingurutik aipatutako egun eta ordutegian.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

**STAFF** Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: [getxokoudalaprentsa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprentsa@getxo.eus) Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.





## “Vivir”, flamenko ikuskizun intimista, sakona eta espirituala Naike Poncerekin

Naike Ponce cadiztar abeslari eta dantzariak, Manuel Cazasek gitarraekin lagunduta, *Vivir*, bere azken lana aurkeztuko du Muxikebarrin, datorren ostegunean, hilak 23. Neguan Flamenco zikloko bigarren kontzertua da, SGAE Fundazioak eta Getxo Kulturak elkarlanean ematen dutena.

Ikuskizuna 20:30ean hasiko da eta sarrera gonbidapenarekin izango da (leihatilan, Muxikebarrin, jasotzekoa).

*Vivir* Naike Ponceren lehen lan handia da. Ikuskizun intimista, sakona eta espirituala, bereziki sentitua eta hunkigarria, Latin Grammys 2020 sarietarako Flamenko Album Onenaren izendapena jaso zuena.

Bere ibilbidean, flamenkoko egungo pertsonaia handiekin lan egin du, hala nola Javier Latorre, Arcangel, Estrella Morente, Diego *El Cigala*, Diego Carrasco edo Manolo Sanlúcar, beste askoren artean. Zentzumenera zerbitzura dagoen musika, dantza eta eszenografia ikuskizuna eskaintzen du.

## Sonia Bousok erakusketa jarri du RKEn

Otsailaren 2ra arte, Sonia Bousoren *Escenarios para un diálogo con la naturaleza* erakusketa bisitatu ahal izango da Romo Kultur Etxean. Erakusketa hau, besteak beste, konfinamenduaren ondorioz naturarekin izan zuen

## Andrzej Olejniczakek 40 urte ospatuko ditu Euskadin

Andrzej Olejniczak saxofoi jozaile, konpositore, moldatzaile eta hezitzaile poloniarrek 40 urte beteko ditu Euskadin eta Getxon kontzertua eskainiko du Muxikebarrin larunbat honetan, hilak 18. Saioa 20:00etan hasiko da eta sarrerak 12 euro balio du.

Bizkaia Big Band taldearekin eta bere ohiko laukotearekin (Nacho Soto, teklatuetan; Iñigo Goldaracena, baxuan; eta Juanma Urriza, baxuarekin) igoko da oholtzara. Oraingoan, Malvina Masternak abeslari poloniarra izango du gonbidatu.



## Unamuno, saio poetiko-musikal bateko protagonista

Asociación Artística Vizcaína eta Coro poético Muelle Marzanak *Unamuno, versos y prosa* errezitaldia eskainiko dute Romo Kultur Etxean ostiral honetan, hilak 17. Fernando Estevez pianista arituko da rapsoda batzuen laguntzarekin.

Ikuskizuna gaztelaniaz egingo da, sarrera doakoa du eta bertan Miguel de Unamunori omenaldia egingo zaio, bere obra batzuk irakurriz.



## Neguko bidaia zikloa “Backstage” emanaldiarekin hasiko da

Areetako Andrés Isasi Musika Eskolak Neguko bidaia kontzertu didaktiko-musikalen zikloa hartuko du aurten ere. Lehenengoa, larunbatean, hilak 18, *Backstage* antzerki musikalaren proposamena izango da, freskotasunez eta dibertimenduz betetako kontzeptu berri bat. Operako hiru abeslari (edo egokitzen zaidanekoak, bizimodua ateratzeko) pianistarekin geratu dira antzokian entseatzeko. Denbora horretan, bidaia bat egingo dute *Carmen*, *Marina*, *West Side Story* eta *Don Giovanni*ren abesti ospetsuenetan barrena, besteak beste, eta, gainera, publikoak parte hartu ahal izango du. Emanaldia 19:30ean hasiko da eta sarrerak 5 euro balio du.



## “Moko”, enpatiarri, errespetuari eta tolerantziari buruzko hausnarketa

Gorakada taldea Muxikebarrira iritsiko da igandean, hilak 19, 18:00etan, haurrentzako euskarazko *Moko* ikuskizunarekin, enpatiarri, errespetuari eta tolerantziari buruzko hausnarketa. Protagonista, Indalecio Bizkarrondo, ume alai eta ausarta zen. Bere abenturetako batean, altuera handitik erori eta aurpegia deformatu zuen, munduaren begietara munstro bihurtuz, eta bakarrik geratu zen. *Moko* esaten zioten (txori-mokoa, euskaraz). Maitatua izan nahi zuen eta hitzak hegan ikusi eta bertso bihurtzeko dohaina zuela konturatu zen. Ez zuten munstro bat ikusten, poeta bat baizik. Ume hori hazi eta Bilintx bihurtu zen, poeta maitea. Sarrera: 6 euro.





Basagoiti etorbidea



Kale Nagusiko tren-geltokia (1920)

## Karla Llanosek "Getxoko argazki zaharrak (1865-1936)" aurkeztu du

Karla Llanos Etxabe getxotarrak *Getxoko argazki zaharrak (1865-1936)* liburua aurkeztu du Romo Kultur Etxean. Azken urteetan landu dituen argazkien bilduma da, eta Udalak diruz lagundu du.

Berrehun orrialde baino gehiagotan, *Memorias de Getxo* blog ezagunaren egileak (2016an *AixeGetxo!* saria jaso zuen Kultura Ondarea, hautemangaitza kategorian) udalerriko dozenaka argazki historiko biltzen ditu. "Gure iragan hurbilerako leiho bat bezalakoa da", dio Karlak. "Gure leku gustukoenekiko maitasunetik jaiotako zerbait da, bertako bazterren bat-bateko ikuspegia. Ibilbide bat jada desagertuta edo eraldatuta dauden lekuetatik".

Liburuaren aurkezpen ekitaldian, Zalora Campillo zinegotziak eskerrak eman zizkion egileari, Getxo modernoaren jatorrira garamatzan argitalpen honetan emandako dedikazioagatik eta laguntzagatik, izan ere, trenbidearen etorrera eta industrializazioa funtsezkoak ziren gure udalerraren garapen sozial, ekonomiko eta urbanistikorako. "Gobernu Irekiaren arlotik Udalak duen ondare fotografikoari balioa eman nahi izan zaio, hainbat hamarkadatan bere artxiboan zein udal liburutegian bildu, zaindu eta kontserbatu baita. Karlaren ahaleginari eta lanari esker, herritarrek jada goza dezaketen harribitxi hau egin ahal izan da".

### Liburua

Liburuko irudi guztiak udal funtsetatik datoz (lehen kapituluko hiru planoak izan ezik). Argazkiak digitalizatu dira, erregistroak bahetu dira, izenburuak, datak eta deskribapenak berrikusi dira, eta dauden irudien multzoaren katalogazio tematikoa egin da.



Zubiko plazatxoa, Areeta (1922)

## KIROLAK

### Hastear da Abran bela arinaren jarduera

Abrako Itsas Elkarteko (RCMA-RSC) José Luis de Ugarte Bela Eskolak bela arinaren egutegiari hasiera emango dio. Modalitate horretako lehen hitzordua asteburu honetan, larunbata 18an eta igandea 19an, egingo den Erecacho Saria da, Optimist, ILCA, 420, FEVA eta Snipe klaseetan. Horrela, 2025eko lehen ibilbideak programatzen dira bela arineko klase desberdinetan, denboraldiko txapelketa nabarmenetrako prestakuntza ona ematen duten probekin, hala nola XXIII. Jose

Luis Azqueta Trofeoa (apirilak 26 eta 27), XXXV. Fashion Outlet-Jose Luis de Ugarte Bela Eskola Trofeoa (irailak 27 eta 28), Go Sailing Shop Bizkaiko Txapelketa, V. Juan Manuel Alonso Allende Trofeoa, Halloween-Ramon Real de Asua Trofeoa edo Gabonetako St. George's British International School Bilbao Saria. Gainera, Bela Eskolako estropadalariek estatuko beste klub batzuek antolatutako probetan ere parte hartuko dute.

